

FRUIZBARRI

Fruizko barriak
Euskara Zerbitzua
Fruizko Udala
2011ko garagarrila
40.zk.

FRUIZBARRI

Udan... udako kontuak.

Eta ez dira gitxi izaten:

Udalekuak // Jaiak // Oporrak // Lagun barriak // Leku barriak // Lagun zein familiakoen arteko egotaldiak, olgetaldiak, solasaldiak // Norberaren gastuetarako diru apur bat ateratzeko "udako-lanak" // Barnetegiren batean matrikulatu eta euskerea ikasi eta hobetu // Atzerrira joan eta kanpoko hizkuntzaren bat ikasi // Irakurri // Idatzi // Pentsatu // Atsedena hartu... eta pilak karga-karga egin udagoena indarrez beterik hartzeko. Ordurarte ondo-ondo pasa danok!



IRAKURKETA GUNEA UGERLEKUETAN

Irakurketa gunea jarri da, beste urte batez, Fruizko ugerlekuetan; era horretara, aukerea emon gura jakie bertoko erabiltzaileei **LIBURUA LAGUN** -eta eguzkia gozo-gozo hartu bitartean- beste lekue eta garai batzuetara bidaiatzeko.

Gura izan ezker, liburuak maileguan hartzeko aukerea dago. Mainer eta Begoña ugerlekuetako arduradunei eskaria egin eta datuak emotea baino ez dago.

Aldian-aldian joango dira liburuak barriztatzen.

Honeek dozuez datozen egunotan irakurketa gunean euskeraz topatuko dozuezan liburuetako batzuk:



HAUR LITERATUREA (0-12 urte bitartekoa)



- KATTALIN ETXEAN LAGUNTZEN
- UNTXIAREN UDABARRIA
- UNTXI TXIKI ZURIA
- MIKELA ETA ARTILEZKO BOLAK
- DENAK DU KONPONBIDEA
- BETI HIRURAK: 4 IPUIN LIBURU BATEAN
- LANDAKO ANIMALIAK

- BUBU ETA BENBE
- GELA NARRASA
- EGUN BAT HONDARTZAN
- ZER EGINGO DUT?
- BASAJAUN TRIKUAK SALBATZEN
- SINBAD MARINELA
- 11 ANDERE AUSART

- VENEZIAKO MISTERIOA
- AMAREN TITI ZORROAK
- OSO FAMILIA NORMALA
- MAKILAKIXKI

- BAKARNEREN GAZTELUA
- JO MUSIKA, JO
- ESPLORADOREA
- ZURIA IZAN NAHI ZUEN HARTZA

- MATXALEN ETA MIXINA
- POTTOLOA NAIZ, ETA ZER?
- KARRAMARRO UHARTEA
- BOST AHIZPA

14-15 URTETIK GORAKOENTZAKO LITERATUREA

- DURANGO, DURANGO
- MUNDUA LO DAGOEN BITARTEAN
- CHOCOLAT
- GOIZEKO ZAZPIAK
- ORAIN GALDERA BERRIAK DITUT
- BERMEO BASATIA
- HAIZEA MINDU GABE
- FRANKESTEIN



ERIZ MAGOA ETA TRIKI AFARIA

Garagarrilaren 9an (zapatua) aparteko animazinoa eta giroa izan genduan herrian. Fruizko Udalak eta Jai Batzordeak prestaturiko ekimenak euki eban horretan zerikusia.



Hasierea emon eta berotzen joateko, Eriz mago handiaren "Biriziklapenaren Magia" ikuskizuna euki genduan eta han ikusikoak ikusita, txiki eta handi, agoa zabalik, zurtz eginda geratu ginan. Sinistuenizekoa, benetan!

Horren ostean, poteotxo eta triki-afaria euki genduan. Giroa: itzela! 60 lagun inguru afaltzen, alkarregaz ondo baino hobeto pasatzen, dantzan, goizaldeko 02:00ak arte, jo ta su!! Afaria eta afariko beharrak jai batzordekoen eskutik joan ziran eta, egia esan, horrenbeste laguneri jaten emoteko gogotik egin eben behar. Marijek eta Maribik be-laguntzeko beti prest- majo lagundu eben.

ESKERRIK ASKO DANORI !!



FUTBOL KANPUSA

Fruizko Udalak FUTBOL KANPUSA antolatu dau aurten lehenengoz. Aproba moduan, eta ekimeneari zelango harrerea egiten jakon ikusteko, lehenengo edizino honek bost eguneko iraupena euki dau (ekainaren 27tik uztailaren 1era) eta ordutegia 9:00etatik 14:00etara izan da.

Harrerea oso ona izan da, 28 umek hartu dabe parte eta sano gustura ibili dira danak.

Aurtengoaren emoitza onak ikusita, datorren urtean baliteke egun gehiago edota ordutegi zabalagoa eskaintzea.

Ikusi egin behar zelan datoza kontuak datorren urtean eta zelango eskaria dagoan!

Argi dagoana da futbolak gure herrian tira handia daukola.



FRUIZTARRAK

**KORRIKEAGAZ
eta
EUSKEREAGAZ**

BAT



Euskerea, geure hizkuntzea, aurrera eta aurrera egiten...

Herritarron kemenari eta indarrari esker.

Eskerrik asko guztioi!

